

PRESTAZIOA ASISTENTZIA SANITARIOAREN

ESKAERA BETETZEKO INSTRUKZIOAK

Noiz aurkeztu dezakezu eskaera hau?

A. Espainian **egoiliarra** bazara eta **ez** bazaude honako egoeretako batean:

- Norbere edo besteren konturako langilea.
- Pentsioduna edo Gizarte Segurantzako aldizkako prestazioen jasotzailea.
- Langabetua, langabeziaren prestazioa edo subsidioa agortu ondoren.

GOGORATU: aipatu egoeretan asistentzia sanitarioaren onarpena ofizioz egingo, eskaria aurkeztu behar izan gabe.

B. Dagoeneko asistentzia sanitarioarako eskubidea titular bezala onartuta baduzu eta eskubide hau eskatu nahi baduzu **onuradun berrientzat**.

C. Asistentzia sanitarioaren prestaziorako eskaera izaten bada **zaintza administratiboaren mendeko adingabeentzat**. Eskaera adingabearen izenean aurkeztuko da bere zaintzaren esleipena duen Administrazio Publikoan.

Nola bete behar duzu eskaera hau?

I. ESKATZAILEAREN DATUAK atalean eskaera aurkezteko interesa duen pertsonaren datuak bete beharko dira, jarraian A eta D arteko hipotesi bakoitzerako adierazten diren espezialitateak kontuan hartuta.

Edozein kasutan, eskaera izenpetu beharko du 2. orrian, eskaera aurkeztu duen pertsonak, norbere izenean, edo ordezkari zen duen hirugarrenaren izenean (ahalduntzerako erregistro elektronikoa inskribatutako ordezkaria, ahalduna edo desgaitasuna duen pertsonentzat babes neurriak ematea dagokion pertsona).

A Hipotesia – ESPAINIAN EGOILIARRA DEN TITULARRA

Gainera bete beharko duzu II. ESPAINIAN EGOILIARRA DEN TITULARRAREN BESTE DATU BATZUK atala.

Zure ezkontide edo bikotea asistentzia sanitarioaren prestazioko titularra bada, hark eskatu behar du zu onuradun bezala barne hartzea (B Hipotesia – BERE ONURADUNENTZAT ESKATZEN DUEN TITULARRA).

Espainiako egoiliar bezala dagokizun eskubidea eskatzeko ez duzu izan behar asistentzia sanitarioa beste bide batetik, esaterako mutualitate bateko (MUFACE, MUGEJU, ISFAS) mutualista edo onuradun bezala eta ez duzu prestazio sanitarioa esportatzeko eskubidea izan behar zure jaiotza edo jatorrizko herrialdetik.

B Hipotesia- BERE ONURADUNENTZAT ESKATZEN DUEN TITULARRA

Onuradun berrien datuak bete beharko dituzu asistentzia sanitarioa eskatzen dutenentzat eta idatziz jasota geratuko dira III. TITULARRAREN ONURADUNEN DATUAK atalean.

Asistentzia sanitarioaren onuradun bezala barne hartu ahal dituzu:

- zure ezkontidea edo izatezko bikotea.
- seme-alabak, ilobak, neba-arrebak, 26 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak, baldin eta % 65eko edo gehiagoko desgaitasun maila onartua dutenean.
- zaintzapean edo harrerapean dauden adingabeak.

Zure onuradunak 14 urtetik beherakoak badira NANA jakinarazi dezakezu edozein unetan. 14 urteko adina betetzean datu hau derrigorrezkoa da, eta jakitera eman beharko da asistentzia sanitarioarako datu-basean gordetzeko.

C Hipotesia – ADMINISTRAZIOAREN ZAINTZAPEAN DAGOEN ADINGABEA

Adingabea bere tutoretzapean duen Administrazioa ordezkatzeko duen pertsona fisikoak datuak bete beharko ditu

I. ESKATZAILEAREN DATUAK atalean.

Gainera zaintzapean dagoen adingabearen datuak bete beharko ditu IV. ZAINTZAPEKO ADINGABEAREN DATUAK atalean.

Alegazioak

Zure eskaera tramitatzeke garrantzitsutzat jotzen duzun eta formularioan jasota ez dagoen zerbait erantsi nahi baduzu, idatziz jasota utzi ezazu ahalik eta modurik laburrenean VI. ALEGAZIOAK atalean.



ASISTENTZIA SANITARIOA

IGIko erregistroa

Izapide hau Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoen bidez egin dezakezu (<https://sede.seg-social.gob.es>), bai ziurtagiri digitala bai CI@ve iraunkorrez. Identifikazio elektronikoko sistemarik ez baduzu, ale sinatu bat bidali ahal izango duzu posta arrunta bidez edo Itsasoko Gizarte Inститutuaren Zuzendaritza Probintzial edo Tokiko batean aurkeztu aurretiko hitzordua eskatuz <https://run.gob.es/xnka31ad> edo “IGI zure poltsikoan” mugikorreko aplikazioaren bitartez

I. ESKATZAILEAREN DATUAK

Lehen abizena		Bigarren abizena		Izena				
Jaiotza-data		Sexua	Egoera Zibila	NAN - AIZ - Pasaportea				
Gizarte Segurantzako Zenb.		Nazionalitatea						
Ohiko helbidea (kalea, plaza ...)				Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea
Posta Kodea	Udalerrria		Probintzia		Herrialdea			
Telefono finkoa	Telefono mugikorra		Posta elektronikoa					

II. ESPAINIAN EGOILIARRA DEN TITULARRAREN BESTE DATU BATZUK

Asistentziaren-prestazioaren estaldura du funtzionarioen erregimen berezia medio, beste herrialde edo nazioarteko erakunde baten bidez:	BAI ☐	EZ ☐
Zure ezkontidea edo izatezko bikotea asistentzia sanitariarako prestazioaren titularra da:	BAI ☐	EZ ☐

III. TITULARRAREN ONURADUNEN DATUAK

	1º Onuraduna	2º Onuraduna	3º Onuraduna	4º Onuraduna
Lehen abizena				
Bigarren abizena				
Izena				
NANI-NIE-Pasaportea				
Gizarte Segurantzako Zenb.				
Jaiotza-data				
Titularrarekin izaten den ahaidetasuna edo lotura				
Telefono mugikorra				
Diru-sarrerak ^{(1),(2)}	€	€	€	€
Prestazio hau denegonrez jasotzen duzu beste bide batetik ⁽³⁾	BAI ☐ EZ ☐	BAI ☐ EZ ☐	BAI ☐ EZ ☐	BAI ☐ EZ ☐
Beste gurasoaren izena (abizen ez) ⁽⁴⁾				
Beste gurasoaren NAN/AIZ ⁽⁴⁾				

(1).- Deklaratzen dira lan-etekinen, kapitalaren edo jarduera ekonomikoen eta ondare irabazien arabera lortutako diru-sarrerak. Errentaren aitorpena aurkeztu denean, oinarri likidagarri orokorraren eta aurrezki oinarri likidagarriaren batura adierazi beharko da.

(2).- Ez dira diru-sarrerak deklaratu behar onuraduna ezkontidea, izatezko bikotea, ezkontide ohia edo banandua bada.

(3).- Funtzionarioen erregimen bereziagatik (MUFACE, MUGEJU, ISFAS) beste herrialde edo nazioarte erakunde baten bidez.

(4).- Ahaidetasuna “seme-alaba” bada, beste gurasoaren izena eta identifikazio-agiria (NANa edo AIZ) jasoko dira.

IV. ADMINISTRAZIOAREN ZANTZAPEAN DAGOEN ADINGABEAREN DATUAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena
DNI - NIE - Pasaportea	Jaiotza-data	Gizarte Segurantzako Zenb
Nazionalitatea	Sexua	Kontaktu telefonoa
Posta elektronikoa		

V. ALEGAZIOAK

ADIERAZTEN DUT egiazkoak direla eskaera honen baitan dauden datuak.

Itsasoko Gizarte Institutuak zure baimena eskatzen du eskaera honetan emandako telefono mugikorra, posta elektronikoa eta kontaktu datuak erabiltzeko, Gizarte Segurantzaren arloko jakinarazpenak egiterakoan.

☐ **BAI baimena ematen dut**

☐ **EZ dut ematen baimena**

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
ARDURADUNA	Itsasoko Gizarte Institutua (ISM)
HELBURUA	IGIaren eskumeneko Gizarte Segurantzaren Sistemako prestazioen kudeaketa
LEGITIMAZIOA	Botere publikoen betearazpena
HARTZAILEAK	Soilik legez aurreikusitako eta zure baimenarekin ziurtatutako emakidak eta transferentziak egingo dira
ESKUBIDEAK	Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu eta ezabatu, informazio gehigarrian azaltzen den bezala
JATORRIA	Beste administrazio eta erakunde batzuetako datuak biltzen ditugu legez aurreikusitako terminoetan
INFORMAZIO OSAGARRIA	Informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu formulario honekin atxikitako informazio-orriaren “DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA” atalean

..... , 20 ko ren(e)an

Eskatzailearen sinadura

Eskaera hau Internet bidez aurkeztuko baduzu, ez duzu inprimaki hau sinatu behar



IGiko erregistroa

ADMINISTRAZIOAK BETETZEKO

Zure espedientea identifikatzeko gakoa:

Harremanerako funtzionarioa:

Abizenak eta izena:

NAN-NIE-Pasaportea

④

IZARTE SEGURANTZAKO ASISTENTZIA SANITARIORAKO ESKAERAREN EGIAZTAGIRIA

ISM-EK ESKAERA JASOTZEAN ESKATZEN DITUEN DOKUMENTUAK:

- ☐ NAN / AIZ / Pasaportea
☐ Eskatzailea.
☐ Ezkontidea/izatezko bikotea.
☐ Oinordekoak.
☐ Beste senide eta zaintzapekoak.
☐ Izatezko zaintzailea.
☐ Kuradore/defentsari judiziala.
☐ Ordezkaría.
- ☐ Ebazpen edo baimen judiziala.
- ☐ Errolda ziurtagiria edo bizikidetzat ziurtatzeko dokumentazioa izatezko zaintzailearen kasuan.
- ☐ Ordezkaritza ziurtatzeko egiaztagiria.
- ☐ Inskripzioa Atzeritarren Erregistro Zentralean edo atzeritarren identifikazio txartela (AIT).
- ☐ Familia liburua edo Erregistro Zibileko aktak.
- ☐ Desgaitasun ziurtagiria.
- ☐ Auto judiziala edo familia harreraren ziurtagiria.
- ☐ Asistentzia sanitarioa ez esportatzearen ziurtagiria.
- ☐ Babesgabetasunaren ebazpena edo epaia.
- ☐ Beste dokumentu batzuk:

Jaso dut

Sinadura

TRAMITERAKO BEHAR EZ DIREN DOKUMENTUAK, ESKATZAILEAK BORONDATEZ DAKARTZANAK:

-
-
-
-

Eskatutako dokumentuak jaso nituen salbuetsita honakoz
enbakiak

Sinadura

Funtzionarioaren kargua eta izena

Data Tokia

IZAPIDEA: Kontuan hartuta honako dokumentuak

.....
.....
.....

Egiaztapen izapide hau igortzen da ziurtatzeko formulario honetan islatutako datuak guztiz bat datozela eskatzaileak ekarri edo erakutsi dituen dokumentuetan agertzen direnekin.

Sinadura

Funtzionarioaren kargua eta izena

Data Tokia

PRESTAZIOA ASISTENTZIA SANITARIOAREN

ZURE PRESTAZIOAREN TRAMITERAKO BEHARREZKO DOKUMENTUAK

1. BLOKEA. KASU GUZTIETAN:

Eskatzailearen, bere onuradunen eta, bere kasuan, eskatzailea ordezkatzeko duen pertsonaren akreditazioa, dokumentazioaren bitartez:

- **Espainiarrak:** Nortasun Agiri Nazionala (NAN) 14 urtetik gorako guztientzat.
- **Atzerritarrek:** Atzerritarren Identifikazio Txartela (AIT) edo bere kasuan, zure herrialdean indarrean dagoen pasaporte edo nortasun agiria.
- Kasu haietan zeinetan eskaera aurkeztu duen pertsonak desgaitasuna duten pertsonentzat babes neurriak ematen dituen, hori egiaztatzen duen dokumentazioa. Izatezko zaintzailearen kasuan, errolda ziurtagiria edo bizikidetzatziurtagiria duen dokumentazioa; kuradore/defendatzatziurtagiria duen dokumentazioa; ebazpen judiziala.
- Ordezkaritza ziurtatzen duen dokumentazioa. Ahalduntzetarako erregistro elektronikoan inskribatutako ahaldunek ez dute ekarri behar akreditazio dokumentaziorik.

2. BLOKEA. KASUEN ARABERA:

A. Hipotesia. ESPAINIAN EGOILIARRA DEN TITULARRA

- Atzerritarrek: Lege-egoitza Espainian izatearen ziurtagiria..
- Europar Batasuneko Estatu kideetako, EEE, Suitza, Erresuma Batua edo Espainiara esportatzeko eskubidea arautzen duen Aldebiko Hitzarmena duten herrialdeetako (Andorra, Txile, Maroko eta Tunis) herritarrek, Gizarte Segurantzaren eskumeneko edo jatorrizko herrialdeko asistentzia sanitariorako erakundeak igorritako ziurtagiri bat ekarri behar dute, ziurtatzeko ez zaiela onartzen Espainian asistentzia sanitarioa jasotzeko esportazioaren eskubidea.

B. Hipotesia. BERE ONURADUNENTZAT ESKATZEN DUEN TITULARRA

- **Atzerriko onuradunak:** Lege-egoitza Espainian izatearen ziurtagiria.
- **Titularrarekin izaten den ahaidetasunaren akreditazioa:**
 - **Ezkontidea:** familia liburua edo ezkontza-inskripzioaren ziurtagiria.
 - **Izatezko bikotea:** inskripzio ziurtagiria, existitzen diren erregistro publikoetako batekoa edo, hori izan ezean, izatezko bikote baten existentzia ziurtatzeko dagokion dokumentu publikoa.
 - **Seme/alaba, iloba eta neba/arreba:** familia liburua edo jaiotza ziurtagiria.
 - Hiru hilabetetik beherako seme-alabarentzat EZ da beharrezkoa izango dokumentazio hau aurkeztea.
 - % 65eko edo gehiagoko desgaitasun maila onartua duen 26 urtetik gorako seme-alaba, iloba eta neba/arrebarentzat, derrigorrezkoa izango da gainera, desgaitasun maila ziurtatzeko ziurtagiria edo txartela aurkeztea.
- **Tutorezapekoa edo harrerakoa:** titularrak, ezkontideak, edo izatezko bikotekideak legeztutoretzapean dela edo harrera-egoera egiaztatzeko agintari eskudunak emandako agiria.

Ez da beharrezkoa izango ahaidetasuna ziurtatzeko dokumentazio hau aurkeztea dagoeneko arestian titularrarekiko onuraduna izatearen egoeran egon bazara.

C. Hipotesia. ADMINISTRAZIOAREN ZAINTZAPEAN DAGOEN ADINGABEA

- Adingabea zaintzapean duen Administrazioak zaintza frogatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta adingabea atzerritarra denean derrigorrezkoa izango da Espainian lege-egoitzaren baimenarekin kontatzea, Espainian dauden atzerritarren eskubideen eta askatasunen eta haien integrazio sozialaren gaineko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 35.7 artikuluan xedatuaren arabera.

PRESTAZIOA ASISTENTZIA SANITARIOAREN

ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUAK JAKINARAZTEN DIZU:

Abuztuaren 3ko 1192/2012 Errege Dekretuaren 6.4 artikuluari jarraiki (abuztuaren 4ko EAO), abian jarritako prozedura ebatzi eta jakinarazteko epe maximoa hogeita hamar egunekoa da, eskaera erregistratu den datatik aurrera edo, bere kasuan, eskatutako dokumentuak ekarri diren datatik aurrera.

Epe hori iragaitean ebazpena jakitera eman gabe, ulertu ahal izango duzu zure eskaera errefusatu egin dela administrazioaren isiltasunagatik, eta kasu horretan aurretiazko erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan xedatuari jarraiki, zeinek arautzen duen jurisdikzio soziala (urriaren 11ko EAO).

Eskaera honekin eransten ez badira bere tramitaziorako beharrezko dokumentuak, aurkeztu egin beharko dituzu hamar eguneko epean, bere errekerimendua egin den datarekiko hurrengo egunetik hasita. Izapide hau Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikokoaren bidez egin dezakezu (<https://sede.seg-social.gob.es>), bai ziurtagiri digitalez bai Cl@ve iraunkorrez. Identifikazio elektronikoko sistemarik ez baduzu, ale sinatu bat bidali ahal izango duzu posta arrunta bidez edo Itsasoko Gizarte Insitutuaren Zuzendaritza Probintzial edo Tokiko batean aurkeztuaurretiko hitzordua eskatuz <https://run.gob.es/xnka31ad> edo “IGI zure poltsikoan” mugikorrekiko aplikazioaren bitartez.

Adierazitako epea bete ezean, ondorioak honakoak izango dira:

- Multzoan eskatutako dokumentuak: ulertuko da zure eskaerari uko egin diozula, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66 eta 68 artikuluetan xedatuari jarraiki (2015-10- EAO).
- Multzoan eskatutako dokumentuak: kontsideratuko da eskubidea izateko eskakizunak ez dituzula behar bezainbat egiaz tatu Maiatzaren 28ko 16/2003 Legea, Osasun Sistema Nazionalaren koesio eta kalitateari buruzkoa, Osasun Sistema Nazionalerako sarbide unibertsalari buruzko uztailaren 27ko 7/2018 Errege Lege Dekretuan aldatua aurreikusiarri jarraiki.

GOGOAN IZAN:

Aldaketaren bat gertatzen bada eskaera honen datuetan, zure familiaren egoeran (egoera zibilaren aldaketa), zure helbidean edo egoitza herrialdean, jakinarazi egin behar duzula Zuzendaritza Probintzialean edo Tokiko hurbilenean.

Zure onuradunek 14 urte baino gutxiago badituzte NAN jakinarazi ahal izango duzu edozein unetan. 14 urte betetzean datu hori derrigorrezkoa da eta jakitera eman beharko asistentzia sanitarioaren datu-basean sartzeko.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	<i>Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?</i> Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Zuzendariorde Nagusia Génova 20 PK 28004 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es
DATUEN BABESAREN ORDEZKARIA	<i>Nola jar gaitezke harremanetan datuen babesaren ordezkariarekin?</i> Gizarte Segurantzako Zerbitzu Juridikoaren zuzendaritza Infanta Mercedes, 31 - 3ª Solairua PK 28020 Madril, ESPAINIA delegado.protecciondatos@seg-social.es
TRATAMENDUAREN HELBURUA	<i>Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?</i> Zure datuak eskaera hau ebatzeko, eta hala badagokio, aitortutako prestazioa kudeatzeko helburu nagusiarekin tratatuko dira. Zure harremanetarako datuak tratatzearen helburua jakinarazpenak egitea eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioa bidaltzea izango da. Emandako datu pertsonalak zure prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, edo bere onuradunenak; baita beste helburu batzuetarako ere: artxibatzea, estatistika publikorako.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	<i>Zer da zure datuen tratamendurako legitimazioa?</i> Datuen tratamendua legezko arau batek baimendutako botere publikoen erabilera oinarrituz egingo da (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testuategia, GSLOTB aurrerantzean, onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 66., 71., 72. eta 77. artikulua eta horrekin bat datozenak; 16/2003 Legearen 3 bis. artikulua, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa; Sendagaien eta osasun produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testuategia onartzen duen uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 103. artikulua). Jakinarazpenei eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioen bidalketari dagokionez, tratamendua baimenaren bidez legeztatuko da. Baimenik ez baduzu ematen, ezin izango duzu jaso mota honetako bidalketak, hala ere, zure eskaeren egoerari buruzko informazioa eman ahalko dizugu kanal horien bidez. Horrez gain, jakinarazten dizugu ez duzula zure helbide elektronikorik eta telefono mugikorren zenbakirik eman behar, eta ez badiguzu ematen, zure eskaera izapidetzen jarraitu ahalko duzula.
LAGAPENEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK	<i>Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</i> Itsasoko Gizarte Institutuak bere eginkizunetan lortutako datu pertsonalak erreserbatuak dira, eta legez agindutako helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, horren helburua GSLOTBren 77. artikuluan berariaz ezarritako kasuren bat bada, edo beste edozein lege-arautan adierazitako kasuren bat bada. Nazioarteko araudian oinarritutako eskaera bat bada, zure datuak zure eskaera izapidetzeko eskumena duten atzerriko erakundeei laga ahalko zaizkie.
INTERESDUNEN ESKUBIDEAK	<i>Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean?</i> Emandako datu pertsonalei dagokienez, edozein unetan eta datuen babesari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan erabil dezakezu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea, edo tratatzeko baimena ken dezakezu hala eskatu den kasuetan. Hori guztia, idazki bat aurkeztuz Itsasoko Gizarte Institutuaren Zuzendaritza Probintzial edo Tokiko batean aurkeztutako idatzi baten bidez, edo postaz, edo Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren bidez, Datuen Babeseko Ordezkariaren aurrean. Datu horiek taula honen bigarren atalean daude. Jakinarazten dizugu zure eskaerari modu egokian ez diogula erantzun uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.
JATORRIA	<i>Nola lortzen ditugu zure datu pertsonalak?</i> Zure eskaeran emandako datuez gain, beste administrazio eta erakunde batzuetatik beste datu pertsonal batzuk biltzen ditugu, arautegia betez, administrazio-jarduera arintzeko eta errazteko. Datuetarako sarbide horiek lege-maila duten arauak babesten dituzte.